

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Gasteizko Herrandarren kaleko 4.a irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak tasazio bateratuaren prozeduraz desjabetzeko proiektuari

Hauxe erabaki zuen Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko apirilaren 17an egindako bilkura berezian:

1. Hasierako onespena ematea Gasteizko Herrandarren kaleko 4.a irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak tasazio bateratuaren prozeduraz desjabetzeko proiektuari. Interesdunek administrazio-dosierrean dute eskuragarri proiektua.

2. Herrandarren kaleko 4.eko jabeen erkidegoa aitortzea desjabetzearen onuradun.

3. Proiektua informazio publikora ateratzea, hilabeteko eperako, ALHAOn, iragarki taulan eta zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, interesaturik dagoen orok egokitzen dituen ohar eta erreklamazioak aurkeztea izan dezan.

4. Halaber, prezio-orriaren eta kalte-ordain orriaren berri hitzez hitz ematea dosierrean ondasun edo eskubideen titular gisa agertzen direnei, banan-banan, eta onuraduntzat jotzen den erakundeari, jakinarazte egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean alegazioak aurkeztea izan dezaten.

5. Jakinaraztea hiru hilabetekoa dela desjabetzeko dosierrearen berariazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea, hasteko erabaki hau hartzen den egunetik hasita; dena den, epea geldieran egongo da, baldin eta interesdunei akatsak zuzen ditzatela edo beharrezko diren agiriak edo beste judizio-elementu batzuk bidal ditzatela eskatu behar bazaie, interesdunari eskakizuna jakinarazten zaionetik agindutakoa bete arteko denboran edo, bete ezean, betetzeko emandako epean.

6. Etetea 2017ko irailaren 19ko Ebazpenaren bidez ezarritako obrak hasteko epea, harik eta desjabetze-dosierra ebatzi arte. (2017ko irailaren 19ko Ebazpenaren bidez obra-lizentzia eman zitzaion Herrandarren kaleko 4.eko jabeen erkidegoari zero kotako bi sarbideko igogailu-kabina aldatzeko eta sotoko solairuaren altuera 10 cm txikiagotuz ataria eraberritzeko —Eraikuntzen Zerbitzuaren 2017/RJERF00021 dosierra—).

7. Probidentzia hau Hirigintza Saileko Eraikuntzen Zerbitzuari jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

8. Herrandarren kaleko 4.eko jabeen erkidegoari jakinaraztea ezen, indarrean dauden ordenantza fiskalak aplikatuz (2018ko abenduaren 12ko ALHAO, 143. zk.), desjabetzeko hasierako onspenarekin batera, dagozkion tasa eskatuko dela ("nahitaez desjabetzeko dosierrek izapidetzea, hirugarren batek eskatuta edo onuraduna administrazio publikoa ez bada"); tasa 455,30 eurokoa da (laurehun eta berrogeita hamabost euro eta hogeita hamar zentimo), eta desjabetzeko dosierra behin betiko onetsi aurretik ordaindu beharko da.

9. Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkariari ahalmena ematea Udalaren izenean eta haren ordezkari beharrezko diren agiri publiko zein pribatuak izenpetu ditzan.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25; Gasteiz), adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 23an

Alkate-udalburua
GORKA URTARAN AGIRRE

NAHITAEZ OKUPATU BEHARREKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA					
Nahitaezko desjabetzearen inguruko legedian eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarritakoaren ildotik egin da zerrenda, zeinak Herrandarren kaleko 4.a irisgarri egiteko okupatu beharrezkotzat jotzen diren ondasun eta eskubideak biltzen baititu, bai eta haien titularren izenak ere.					
FINKA	KATASTROKO ERREFERENTZIA	ERAGINA	TITULARRAK	ERRENTARIA	GAINERAKO TITULARRAK
Garajea	595707590000020046MO	1,25 metro kubo	Isidro Gómez Uriarte María Pilar Iñigo San Germán	Ez dago jasota	Ez dago jasota